



DEBAko UDALA

2017SPLE0007
7. BILERA: OHIKOA 2017-07-27

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: zazpigarrena

Eguna: 2017/07/27

Hasiara-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:45

Onarpen-eguna: 2017/09/28

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

UNAI LEKUBE ARANBERRI

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaidu ez diren zinegotzi hautatuak:

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA


AIMAR LASA URKIRI

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

Bertaratzeak eta irteerak:

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA zinegotzia 3. puntua lantzeko orduan sartu da pleno aretora.

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/06/29).
2. Debako Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A. artean lankidetzaren hitzarmena sinatzeko proposamena, zubian (Deba-Mutriku) azpiegiturak berrizatzeko.
3. Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinarri arautzaileei hasierako onespena ematea.
4. 2016ko kontu orokorra onartzeko proposamena.
5. Kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean onartzeko proposamena.
6. Udal langileen ordainsaria 2017 ekitaldian %1 gehitzeko proposamena.
7. 2017ko San Roke jaietako programa eta aurrekontua onartzeko proposamena.
8. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
9. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/06/29)

2017ko ekainaren 29ko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik bederatzi bilkuran direla.

2.- Debako Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A. artean lankidetzaz hitzarmena sinatzeko proposamena, zubian (Deba-Mutriku) azpiegiturak berrizatzeko.

Erabakia.

Hitzarmen proposamenaren berri eduki ondoren Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik bederatzi bilkuran direla.

Lehenengo.- Debako Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A. artean lankidetzaz hitzarmena sinatzea, zubian (Deba-Mutriku) azpiegiturak berrizatzeko.


Bigarren.- Alkateari ahalmena ematea Udalbatzarraren izenean kontratua sinatzeko.

3.- Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinarri arautzaileei hasierako onespena ematea.

Iritziak eta galde erantzunak

M.^a Luisa Albizu zinegotziak esan du, udal aurrekontutik % 0,7 bideratzen dela kooperaziorako, kopuru garrantzitsua dela eta dirua banatzeaz gain sentsibilizazio lana egitea garrantzitsua dela. Diru-laguntzen esleipena arautzea, irizpideak finkatzea eta deialdia publikatzea garrantzitsua da eta nabarmendu nahi izan du jarraitutako prozesua, izan ere, herri kontseilu bat sortu zen, hainbat bilera egin dira eta partehartzea eta inplikazioa handia izan da, bereziki Jose Luis Albizuren inplikazioa azpimarratu du.

Jose Luis Albizu zinegotziak eskerrak eman dizkie diru-laguntzen araudia egiten lagundu dutenei. Interesgarritzat jo du araudia talde lan bat izateaz gain esperientziaren arabera egokituz joan daitekeela. Azpimarratu du Debarren proiektuak hobesten direla eta nabarmendu du gainbegiratuko dela dirulaguntzak esleitzeko orduan proiektuak benetan kooperazioa bermatzen duela, hau da, giza garapenaren aldeko kooperazioa dela.



DEBAko UDALA

Erabakia.

Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamar bilkuran direla, horretarako aintzat hartu da Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren batzorde informatzailearen proposamena:

Lehenengo.- Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak norgehiagoka prozedura bidez esleitzeko oinarri arautzaileei hasierako onespena ematea

Bigarren.-Oinarri arautzaileak jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, apirilaren 2ko, 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren Legearen 49. artikuluari jarraiki, interesdunek beharrezko ikusten dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izateko. Jendeari jakinarazteko aginduta dagoen epea amaitutakoan, inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez bada, aipatutako Araudia, behin betiko onartutzat joko da.

Espedientea Debako Udaleko Idazkaritzan dago (Portu kalea, 1), nahi duenak ikus dezan, goizeko 8:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean.

Erreklamazioak eta iradokizunak egin nahiz izanez gero, epe horretan bertan egin behar dira, eta Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu. Horiek erabakitzeko ahalmena Udalbatzak du.

4. 2016ko kontu orokorra onartzeko proposamena.

Txostena

Kontu Orokorrari buruz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak ondoko hau xedatzen du:

62. artikulua. Urteko orriak eta kontuak.

1.- Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketan berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu:

Egoeraren Balantzea.

Galera eta Irabazien Kontua.

Memoria, honek atal hauek izan behar ditu:

Finantzaketa-taula.

Zorraren egoera.

Informazio-eranskina, hemen aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatu behar dira.

Aurrekontuaren likidazioa.



DEBAko UDALA

2.- Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte:

Egiaztapenaren balantzea.

Kreditu-aldaketen egoera-orria.

Baloreen egoeraren eta mugimenduen orria.

63. artikulua. Gertutu eta onesteko prozedura.

2.- Udalburuak gertututako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen jarri behar da toki erakunde kontuen batzorde bereziaren onespenerako.

3.- Kontu Orokorra, aurreko idatz-zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrera azalduko da 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, ingerak zein oharra aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du.

Horiek horrela, **2017ko uztailaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu zen** eta 15 lanegunez jendaurrean ikusgai egon dira 2016 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrari eta Ondare Administrazioari zegozkien dirukontuak.

Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, **Kontu Orokorra udalbatzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.**

5.- Toki erakundeek **behar bezala onetsitako Kontu Publikoaren berri emango dio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari**, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

Iritziak eta galde erantzunak

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, beariiek ezetz bozkatuko dutela, izan ere, 2016ko aurrekontuaren onarpenaren kontra bozkatu zuten eta arrazoiak oraingoan berberak dira, besteak beste, aurrekontuak lantzeko orduan jarraitutako prozedurarekin desadostasuna, Udalbiltzari dirulaguntza ukatzea, auditoretza egitearekin desadostasuna, beraiek proposatutako hainbat inbertsio ez egin izana, likidazioa ikusita atzematea beraienzat esanguratsuak diren hainbat partida gastatu ez izana (Agenda 21 edo auzokonposta esate baterako), partehartzea batzordeak bakarrik aurkezpen bilera egin izana...

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

BOZKETA

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	10
◇ Aldeko botoak:	6
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BENGOTXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M ^a LUISA ALBIZU, Debarren Ahotso taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ IÑIGO CAMBRONERO, UNAI LEKUBE EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Aurkako botoak:	4



DEBAko UDALA

◇ Aurkako boto-emaileak: MAIDER ZUBICARAY, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	0
◇ Emaitza: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamenaren eta idazkariaren txostenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla:

Lehenengo.- Onartzea 2016 ekitaldiko Kontu Orokorra, honako Aurrekontuok jasotzen dituenak:

- Udalarena.
- Deba Musikal Patronatuarena.
- Esku Langintza Eskola Fundazioarena.
- Itziarko Toki Entitate Txikiarena.

Bigarrena.- Berri ematea Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari.

5.- 01/2017 Kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean onartzeko proposamena.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamena.

4.- 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA.-

Kredituen aldaketarako 2017ko 1. zenbakidun espedienteari buruz, eta, Tokiko Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legearen 158.2 artikulua eta Udal Araudia betez, Gastuen Aurrekontuan gordetako kopuruak nahikoa ez direnean eta hurrengo ekitaldirarte atzeratu ezin daitezkeen Udaleko ordainketak egiteko krediturik ez dagoenean, esandako aurrekontuak gehitu ahal izango dira edo kredituentzako ezohiko kredituak ematea adostu ahal izango da.

4.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº1.-

En relación con el expediente de modificación de créditos nº 1 de 2017 y en cumplimiento del artículo 158.2 de la Ley 39/1988 reguladora de las Haciendas Locales y de la Norma Municipal, cuando sean insuficientes las consignaciones en el Presupuesto de Gastos, cuando no existe crédito para atender el pago de las obligaciones de la Corporación que no pueden demorarse hasta el ejercicio siguiente, pueden suplementarse aquellos o



DEBAko UDALA

Kontuan izanda Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen 158.etik 162.era doazen 4 artikuluetan ezartzen dena eta Erakunde honen egungo beharrak ikusita, aldatu edo sortu behar diren kredituak, erabiliko diren kredituak adierazten diren igoera eta kenketen azterketan zehazten direnak dira.

acordar la concesión de créditos extraordinarios para éstas.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en los 4 artículos 158 al 162 de la Ley Reguladora de Haciendas Locales y vistas las necesidades actuales de esta Entidad, los créditos que deberán ser modificados o creados son los que se detallan en el estudio de aumentos y deducciones en el que se indican los créditos a utilizar.

1 KREDITU ALDAKETA 2017 MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 1		
Kap.	Gastuen egoera	
6	Astillero eta Osio kaleko obrak	464.089,00€
2	Praileaitz inguruko zabortegiaren proiektua	36.300,00€
3	Sortegi, S.L.	79.845,00€
	GUZTIRA	580.234,00€
	Erabilitako baliabideak	
8	Altxortegiko gerakina	580.234,00€
	GUZTIRA	580.234,00€

Ogasuna, Ondarea eta Kontuutarako Batzordeak aho batez erabaki du 1zki-dun kredituen aldaketa eta Plenora helaraztea erabaki du.

La Comisión de Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas acuerda por unanimidad la modificación de créditos nº 1 y propone su traslado al Pleno.

Txostena

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.



DEBAko UDALA

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikulua araber, **kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espediente onartzeko eskumena udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.**

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa

Iritziak eta galde erantzunak

Alkateak gehitu edo/eta sortu beharreko partiden berri eman du. Azaldu du, Osio Kaleko irteera konpontzeko bi irtenbide posible daudela eta lantzen dabilatzatela.

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, Osio eta Astillero kaleetako lanen proiektuarekin ados dagoela, baina Osio irteera oso arriskutsua dela eta ondorioz, lanak hasi aurretik konponduta egon beharko litzatekeela eta horren baldintzapean beraien botoa aldekoa izango dela.

Erabakia.

Ogasuna, Ondarea eta Kontuatarako batzordearen proposamenaren eta idazkariaren txostenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla:

Lehenengo.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 01/2017 espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:



DEBAko UDALA

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntza
2	Praileaitz inguruko zaborteziaren proiektua	36.300,00
3	Sortegi, S.L.	79.845,00
6	Astillero eta Osio kaleetako obrak	464.089,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		580.234,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	Altxortegiko gerakina	580.234,00
GUZTIRA		580.234,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

6. Udal langileen ordainsaria 2017 ekitaldian %1 gehitzeko proposamena.

Zinegotziek eskuartean dutena, Personal eta Barne Erregimena batzordearen proposamena da.

Aurrekariak

2017ko uztailaren 13an EUDELeK langileen ordainsariei buruzko gomendioa 2017ko ekitaldirako igorri zien udalei, eta besteak beste, 2017 ekitaldirako, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %1 gehitu beharko lirатеkeela jasotzen du.

Ordainsariak %1 gehitu beharko lirатеke 2016ko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinasunari begira, 2017ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtariletik aurrera izan ditzan ondorioak.



DEBAKO UDALA

Erabakia.

Personala eta Barne Erregimena batzordearen berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du ondoko erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla.

Lehenengo.- 2017 ekitaldirako, Debako Udaleko sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %1 gehitu eta dagozkion doikuntzak egin, ordainsarien igoerak 2017ko urtarrietik aurrera izan ditzan ondorioak.

Bigarren.- Erabaki hau langileen ordezkarietara jakinaraztea.

7. 2017ko San Roke jaietako programa eta aurrekontua onartzeko proposamena.

Iritziak eta galde erantzunak

El concejal Iñigo Cambronero ha tomado la palabra y ha dado explicaciones acerca de aspectos tales como la estimación del presupuesto de fiestas, la duración de las mismas o la distribución por días del programa de fiestas. Ha explicado que este año se ha apostado por buenos conciertos, especialmente el del día 15 de agosto. Ha añadido que habida cuenta que hay gente que se marcha antes de fiestas, para el día 12 y para el día 13 están programados entre otros, espectáculo de herri kirolak, desencajonamiento de novillos ...

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, beraiek abstenituko direla, eta arrazoiak aurten ere joan den urtean azaldukoak direla.

Azpimarratu du, Camborekin senidetzea dela eta, beraiek nazio ikuspuntu batetik ikusten dutela gaia, hau da, ikuspegi instituzional batetik haragago.


Jai egun kopuruaren inguruan esan du, deigarria suertatzen zaiola bost egun ez egitearen arrazoi izatea talde batek ekarpen ekonomikoa ez egitea. Horren harira galdetu du joan den urteko 10.000 euroko defizita nork asumitu duen.

Desenkajonamenduaren inguruan esan du, horrelako ekitaldi bat egitea zalantzarria dela zezenen gaia bera gaur egun horren zalantzarria izanda. Gainera ekitaldi hori oso arriskutsua iruditzen zaiola.

Galdetu du ea zer gertatu den udal-aparejadorearekin, entzun baitu udal-aparejadoreak ez duela sinatuko eta bajan dagoela. Azalpenak eskatu ditu.

Iñigo ha dado una explicación general acerca de cómo se han ido sucediendo los acontecimientos, menciona que en una reunión con el aparejador municipal este planteó sus dudas acerca de la peligrosidad del evento, que hubo una reunión un tanto tensa y que posteriormente el aparejador ha cogido la baja, por lo que se ha procedido a la contratación de un aparejador. Estima que ha habido falta de comunicación entre la Comisión de Fiestas y el aparejador municipal.

En cuanto al déficit de los 10.000 €, dice que no le cuadra con sus datos, ya que los gastos se dividieron y Debadarrak pagó 7.000€.



DEBAko UDALA

El Alcalde en relación al tema del aparejador ha explicado que éste tenía toda la documentación de la plaza de toros preparada y que hubo falta de comunicación en relación al evento del desencajonamiento, evento que no le daba tiempo a preparar. Solicitó se le eximiera de las funciones relacionadas con festejos a lo que no se accedió y que posteriormente causó baja. Que ya está de alta, que ahora está de vacaciones tras las cuales se reincorporará.

Jose Luis Albizu zinegotziak gogorarazi du puzgarriekin istripu larriak egon izan direla azkenaldi honetan eta zaintza handitzea eskatu du segurtasun neurriak bermatuz.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

BOZKETA

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	10
◇ Aldeko botoak:	6
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BENGOTXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M ^a LUISA ALBIZU, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ IÑIGO CAMBRONERO, UNAI LEKUBE EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak: :	4
◇ Abstenitu direnak: MAIDER ZUBICARAY, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Emaitza: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia.

Jaietarako Batzordearen proposamenaren berri izanda, Udalbatzarrak hartu du erabakia goian adierazitako gehiengoarekin legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla.

Lehenengo.- 2017ko San Roke jaietako programa eta aurrekontua onartzea.

8. Alkatezta Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

85	2017/06/26	Igeltseritzako ofiziala edota zenbait eginkizunetarako langileen lan poltsa eratzeko oinarriak onartzea eta deialdia egitea.	2017SEBT0002
86	2017/07/01	Parking zaintzailearen kontratazioa uztailaren 1etik abuztuaren 27ra	
87	2017/07/03	Eguneko zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa uztailaren 3tik 21era	



DEBAKO UDALA

88	2017/07/05	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga	
89	2017/07/05	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga	
90	2017/07/05	Zorren ordaintzaren espedientea, Sortegi S.L	
91	2017/07/06	Euskadi Minbiziaren Aurkako Elkarrekin azaleko minbiziaren aurkako kanpaina aurrera eramateko baimen ematea.	2017ALES0073
92	2017/07/06	Euskadi Minbiziaren Aurkako Elkarrekin diru bilketa egiteko baimen ematea	2017ALES0074
93	2017/07/06	Alkateak, ezkontza zibilak ospatzeko duen ahalmena zinegotzi baten esku uztea	
94	2017/07/07	Akats zuzenketa: Maixokua baserriaren lursail baten banatze baimenaren zuzenketa	
95	2017/07/07	Herritarren Partaidetza eta Ekonomiaren Sustapenerako batzordeburuaren ukoa onartzea	
96	2017/07/11	Debako Osio erreka azterlan-hidraulikoa egitea esleitzea	2014NNSS0001
97	2017/07/12	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga	
98	2017/07/13	Terrazetako udal ordenantza ez betetzeagatik zigor espedientearen aurretiko ohartarazpena	
99	2017/07/13	Mazantini tabernaren terraza handitzearen eskaeraren erabakia	
100	2017/07/13	Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga	
101	2017/07/17	Artzabalko baratza: Alokairu kontratuaren luzatzea	2016SCCO0005
102	2017/07/19	Remolcanorte SL, neurri zuzentzaileak eskatzea	2017URLA0002
103	2017/07/19	Igeltseritzako ofiziala edota zenbait eginkizunetarako langileen lan poltsa eratzeko lehiaketan parte hartzeko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda	2017SEBT0002
104	2017/07/21	Eguneko zentroko 3 langileren oporrak ordezkatzeko kontratazioa uztailaren 24tik irailaren 15era	

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

8.- Eskariak eta galderak.

Maider Zubikarai zinegotziak esan du, Udalbatzarraren aurreko saioan eskatu zuela Barne Errejimena eta Pertsonala Batzordea egitea eta aurreko astean bilera egin zela baina ahaztu egin zitzaioela udal pertsonalari berari deialdia egitea, ondorioz, eta akta egiteke dagoenez, gai zerrendako hainbat punturi buruz azalpenak eskatu ditu.

Alde zaharrera automobilen sarrera nola kontrolatuko den jakin nahi du, izan ere, gaia oso zaila da alde interesatu asko daudelako. Beraiek saiatu ziren gai hau konpontzen eta abian jarritako neurriak oso eztabaidatuak izan ziren. Beraiekin kontatuz gero beraiek ere proposamenak egingo dituztela esan du.

Alkateak erantzun dio bi modu daudela, OTA edo semaforoak eta azken sistema hau inplantatzeko enpresa baten proposamena jaso dela. Esan du asmoa dela denon artean lantzea nola egin daitekeen horrenbeste automobil ez egoteko plazan.

Jarraian, Barne Errejimena eta Pertsonala Batzordearen bileraren gai zerrendako beste hainbat punturi buruz informazioa eskatu du eta alkateak eman dio.



DEBAko UDALA

Maiderek esan du, Ogasuna batzordeko azken bileran udal kontuhartzaileak adierazi zuela Zeletako auziak Udalarengan eduki ditzakeen ondorioekin oso kezkatuta dagoela eta beraiek ere Udalbatzarraren saio honetan beraien kezka adierazi nahi dutela eta eskatzen dute aholkulari juridikoekin bilera egitea.

Alkateak laburbildu du nola dagoen auzia momentu honetan.

Maiderek esan du Ogasuna batzordeko azken bileran mahairatu zela XXXXX ez zela jadanik Arte Eskolako zuzendaria eta indemnizazio bat jaso duela.

Iñigo Cambronero zinegotziak azaldu dio, XXXXX eszedentzian zegoela beste zuzendari bat izendatu zela eta hari ordaintzen zitzaiola zuzendari plusa. XXXXX lanera bueltatu zenean eskatu zuela zuzendari plusa kobratzea eta ezezko erantzuna jasotzerakoan gaia auzitegira eraman zuela. Azkenean bere abokatuak akordio batera heltzea proposatu zuen eta itundutako amaiera eman zitzaien gaiari.

Eli Urteaga zinegotziak gogorarazi du, Cambo Eguna dela eta maiatzen Euskal Herria Baiko zinegotzia hil zela eta egokia izango litzatekeela oromen ekitalditxo bat egitea edo lore eskaintza bat egitea... EH Bilduk berea egingo dio, baina akaso Udalak berea egitea egokia izango litzateke. Ane Egidazu zinegotziak esan du jadanik gaia hitz eginda dagoela eta lore eskaintza bat egingo diotela.

Cambo Egunaren harira Maiderek berriro ere azpimarratu du harremana ez litzatekeela izan behar harreman instituzional soila baizik eta egun horrek nazio ikuspegia eduki beharko lukeela.

M.^a Luisa Albizu zinegotziak azaldu du, Berdintasuna batzordearen ekimenez txapak banatuko direla jaietan (zinegotziei txapa bana banatu die), komunikatu bat egin dutela matxismo eta homofobia aurrean jarraitu beharreko protokoloarekin eta taberna eta txostenen kartelak egongo direla eta kondoiaren erabilpena bultzatzeko kanpaina bat egingo da.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2017ko uztailearen 27a

IDAZKARIA



